



## UDAL INFORMAZIOA 2021EKO URRIA

### PELLE TTIKI BERRIZ IREKIA

Joan den urtean, udalak pena handiz eman zuen **Pelle Ttiki haur txokoa** ixteko erabakiaren berri. Haur bakarrak eman zuen izena eta bideragarria ez zela ikusita, zerbitzua alde batera utzi behar izan zuen. Ez zuen, ordea, betiko itxiztat jo, eta aurten berriz **ireki** du guraso batzuen nahiari erantzunez.

Bortz neska-mutikok eman dute izena eta astelehenetik ortziralera, 09:00etatik 13:00etara, Ane Gurrutxuga Lesakako hezitzailearekin biltzen dira. Lesakako Magalako Ttikia da Pelle Ttikiren ardura hartu duena eta enpresa hori izan da haur txokoa itxuraldatzeaz arduratu dena. Ibilbide luzea egitea espero dugu!



### FRONTOIKO LANAK

Zuetako aunitzek ikusi izanen duzuen bezala, azken boladan hainbat lan egiten aritu dira frontoian. Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzari esker, led argiak eta eguzki-panelak paratu dituzte eta teilatua moldatu dute.

#### **GASTUAK:**

- Led argiak** paratzea: 6.339,19 €
- Instalazio fotovoltaikoa** paratzea, proiektua eta obra zuzendaritza egitea: 24.264,51 € (Horie-tatik 18.494,96 € instalazioari dagokion gastua).
- Frontoiko teilatua** moldatzea: 17.999,25 €.

Lan hauek egiteko bi dirulaguntza hartu ditu udalak Nafarroako Gobernutik: Alde batetik, toki-ko ekonomia sustatzeko dirulaguntza eta bertetik, Covid-19ak sortu dituen beharrei erantzuteko dirulaguntza. **Gastu horren % 85 Nafarroako Gobernuak** ordaindu du, eta gainerako % 15a udalaren gain gelditu da.

Bertzalde, eguzki-paneletatik sortutako energia herriko eraikin publikoetara bideratuko du udalak.



